

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako 69 elkartek Gobernuaren aintzatespena jaso dute Enpresako Erantzukizun Soziala hobetu dutelako

Ayerdi lehendakariordeak diplomak entregatu dizkie InnovaRSE metodologia ezarri duten sozietateei, eta horien artean Nafarroako Parlamentua dago

Ostirala, 2017.eko azaroak 3

Manu Ayerdi lehendakariorde ekonomikoak diploma bat entregatu die ostiral honetan InnovaRSE metodologia ezartzen ari diren Nafarroako 69 elkarteri, Enpresen Erantzukizun Sozialaren kideak pixkanaka osatzen direnak.

Aintzatesteko ekitaldian Ekonomia, Enpresa eta Lan Politikako zuzendari nagusi Izaskun Goñik ere parte hartu du. Horrela, Ekonomia Garapeneko ostiraleko jardunaldia Condestable Jauregian izan da.

Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez diploma bat jasotzeko joan da ekitaldira. Horrela, Nafarroako Parlamentuak programan duen inplikazioa nabarmendu dute, InnovaRSE metodologia ezartzen duen Nafarroako Sektore Publikoaren lehen erakundea delako.

Diplomak entregatu ondoren Izaskun Goñik InnovaRSEren metodologia aurkeztu du, Foru Komunitatekoa berezkoa dena, eta Europar Batasunak enpresek duten erantzukizun sozialari buruzko estrategia erreferentzia gisa hartuz, aplikatze-protokolo bat sustatu eta bultzatzen du.

Programak enpresek, gizarteak eta erakundeek elkarri eskatzen dioten kultura bat gisa hartzen du Enpresen Erantzukizun Soziala (RSE). Horrela, zenbait helburu garatzen ditu jarduera integrala lortzeko. Enpresak legezko eskaerez harago joatera eta beraien barne ekosistema hobean konpromiso hartzera eta gizartearekin eta ingurumenarekin harreman hobea izatera bultzatzen ditu. Horrela, denen eta enpresaren interesa bera izango da.

Optitud enpresako kontseilari delegatu losu Lazcozek "Optitud Enpresen Erantzukizun Sozialean" izeneko hitzaldia eman du.



Aintzatesteko enpresa-taldearen argazkia. Erdian Ayerdi lehendakariordea eta Parlamentuko lehendakari Ainhoa Aznarez.

Lazcozentzat optitud delakoa norberak baikortasuna eta jarrera bateratuz jokatzeko erabakia da. Horri esker, lan-ingurune positiboetan berrikuntza hirukoizten dute, salmentak handitzen dira, absentismoa eta langile aldaketak murrizten dituzte.

Lazcozentzat XXI. mendeko enpresak erabaki garrantzitsu baten aurrean daude: iraunkortasuna bermatu behar dute denbora, edo gaur egun duten inertiari jarraitu. Etorkizuna ziurtatu nahi badute, aktiborik baliotsuena beharko dute: pertsonak. Horrez gain, kontsumitzen dituzten baliabideekin errespetutsuak izan beharko dute, gero eta gutxiago baitaude. Lehiakortasuna handitzeko, Lazcozentzat, kontuan hartu behar dugu ekosistema sentikor eta mugatu baten barruan aritzen garela. "Dena egituratzeko neurtu eta jardun behar dugu, eta bide horretan daude gaur goizean entregatu diren InnovaRSE zigiluak".

Zabala Innovation Berrikuntza Sozialeko Saileko zuzendari Mikel Berraondok Enpresen Erantzukizun Sozialaren barruan dagoen lan-harremanari buruz hitz egin du.

Berraondok azaldu du RSE aldaketen une garrantzitsu batean dagoela arautegien zenbait bilakaerengatik, nazioarteko lankidetzako agendek enpresen gizarte-konpromisoak indartzen dituztelako.

Aro berrietan, nabarmendu du Berraondok, enpresaren gizarte-balioa garatzea edo giza eskubideen arloan behar bezalako parametroak erabiltzea ezinbesteko baldintzak dira bere gain hartu nahi dituen borondatezko konpromisoez harago doan edozein enpresarentzat.

Berraondoren ustez, "Nafarroako Gobernua aitzindaria izan da administrazio publikoen artean bere InnovaRSE metodologiarekin. Metodologia horrek, Zabalaren kasuak erakusten duen moduan, enpresei RSEren eskaerekin bat egiteko aukera ematen die; baita haien gizarte eta enpresa onurak ulertzen eta iraunkortasun-txostenen mundu zailean sartzea ere".

Lan Zerbitzuko zuzendari Javier Zubicoak Matukio enpresako kontseilari delegatu Danny Imizcozek moderatu duen saioa amaitutzat eman du.